DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2025

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO

- MEC 2025. Merkataritza-establezimenduak eta merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzu jakin batzuk modernizatzeko laguntzak 2
- Hiri merkataritzaren lankidetza, dinamizazio eta lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzera bideratutako laguntza-programa - HIRIGUNE 2025 4
- MerkaEkin 2025. Merkataritza-ekintzailetzarako 2025eko laguntza-programa 6
- Turismoa Merkaturatzeko eta sustatzeko Laguntza-Programa – TMS 2025 8
- Ekintzailetzarako eta Turismo-enpresen Leihakortasunaren hobekintzarako laguntzak- EMET 2025 10
- Lurralde-proiektu Turiskoetarako laguntzen programa -PTT 2025 13

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

MEC 2025. Merkataritza-establezimenduak eta merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzu jakin batzuk modernizatzeko laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko apirilaren 29koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, merkataritza-establezimenduak eta merkataritza-jarduerarekin lotutako zenbait zerbitzu modernizatzeko laguntza-programa arautzekoa eta 2025eko ekitaldirako deialdia egitekoa (MEC).). (2025eko maiatzaren 7ko EHAA, 84. zenbakia).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/05/2501918e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua:

Helburua da EAEko merkataritza-establezimenduak eta merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzu jakin batzuetako establezimenduak moderniza daitezen eta energia-kontsumoaren efizientzia hobe dezaten bultzatzea, berrikuntzaren bidez; oinarri teknologiko eta eko-efizienteko prozesuak ezartzea, eta merkataritza-jarduerarekin edo zerbitzu jakin batzuekin lotutako kudeaketa-tresnak, azpiegiturak eta ekipamenduak hobetzea, kalitate eta lehiakortasun handiagoa lortzeko.

Hartzaileak:

Norberaren konturako langileak edo autonomoak, sozietate zibilak eta ondasun-erkidegoak, mikroenpresak eta enpresa txikiak, baldin eta beren jarduera nagusia Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako kaleko establezimendu fisikoetan egiten badituzte.

Aurrekontua:

4.603.000 euro

Betekizunak:

- Laguntza-eskaeraren xede den kaleko establezimendu fisikoaren jarduera ekonomikoak eta haren egoitza sozial eta fiskalak EAEn egon behar dute.
- Aginduaren 5. oinarrian jasotako ekonomia-jardueren gaineko zergaren epigrafe edo multzoren batean kokatutako jarduera batean aritzea eta alta emanda egotea eskabidearen egunean.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea laguntza emateko ebazpena, emateko eta likidatzeko ebazpena edo likidazio-ebazpena eman aurretik.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2025eko deialdiko datuak honako hauek izan dira:

Hasierako kreditua: 4.603.000 euro

Ebatzitako zenbatekoa, guztira: 4.603.000 euro

Espediente-kopurua, guztira: 1.559

Emandako espediente-kopurua: 1.123

Aurrekontua agortzeagatik ukatutako espediente-kopurua: 209

Aurrekontua % 100ekoa da, eta, beraz, programak erantzun eta gogobetetze handia izan du merkataritza-banaketaren sektorean.

10.3.c) eta 23.2.c) oinarrietan, berdintasuna sustatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko neurriak jasotzen dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Laguntza jaso duten merkataritza-establezimenduen kopurua	1.200	1.123

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Hiri merkataritzaren lankidetza, dinamizazio eta lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzera bideratutako laguntza-programa - HIRIGUNE 2025

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko martxoaren 18koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baita 2025 ekitaldirako hiri merkataritzaren lankidetza, dinamizazio eta lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzera bideratutako Hirigune programako (2025eko martxoaren 26ko EHAA, 59. zk.).

AGINDUA, 2025eko apirilaren 9koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, 2025eko martxoaren 18ko Agindua zuzentzen duena. Agindu horren bidez, Hirigune 2025, hiri merkataritzaren lankidetza, dinamizazio eta lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzera bideratutako laguntza-programarako deialdia egin zen 2025eko ekitaldirako (2025eko apirilaren 14ko EHAA, 72. zk.).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/03/2501358e.pdf

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/04/2501656e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen xedea da merkataritza-elkarteen jarduera bultzatzeko 2025eko laguntzak arautzea, hiri-merkataritzaren lankidetza, dinamizazio eta lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzeko, modu horretan merkataritza-sektorea biziberri dadin.

Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko merkatari-elkarteen arteko lankidetza bultzatu nahi da, udal-inguruneak hiri-ekonomiako gune gisa balioetsiko dituzten zona-estrategiak garatzeko, udal-merkatarien elkarteei, elkarte mistoei edo hiri-merkataritzako plataforma, elkarte edo elkarteei zuzendutako laguntzen bidez.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Aurrekontu-exekuzioa: Ordainketa-kreditua: 1.680.000 euro / Konpromiso-kreditua: 420.000 euro

- Elkarte eskatzaileen kopurua: 80 elkarte
- Emandakoak: 77
- Atzera egindakoak: 3
- Aurkeztutako zenbatekoa: 2.946.856,74 euro
- Guztira emandako dirulaguntza: 2.100.000,00 euro
- Ehunekoa: % 100

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Dirulaguntzaren onuradun izan diren zonako elkarteak	77	77

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

MerkaEkin 2025. Merkataritza-ekintzailetzarako 2025eko laguntza-programa

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko uztailaren 1ekoa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira merkataritza-ekintzailetzarako 2025eko laguntza-programaren deialdiaren oinarriak (MerkaEkin) (EHAA, 129. zk., 2025eko uztailaren 9koa).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/07/2503065e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua:

Programaren helburua Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) merkataritza-ekintzailetza sustatzea da. Programa merkataritzaren ezaugarri berezietara egokituta dago, eta merkataritza-sektoreko pertsona eta enpresa ekintzaileei laguntzeko tresna da.

MerkaEkin arautzen duen Agindua bi laguntza-programatan antolatuta dago:

A) «Merkataritza-Ekintzaile Aholkularitza»; Merkataritza-ekintzailetzan aholkularitza espezializatua emateko dirulaguntzen programa.

B) «Merkataritza-Ekintzaile Dirulaguntzak» merkataritza-ekintzailetzarako laguntza ekonomikoen programa, aurrez egindako aholkularitzan planteatutakoa ekonomikoki gauzatzen laguntzeko.

Hartzaileak:

Ekintzaileak; pertsona fisikoak, talde sustatzaileak, autonomoak, sozietate zibilak eta ondasun-erkidegoak, mikro-enpresak eta enpresa txikiak izan daitezke.

Aurrekontua: 2.420.000 euro

Betekizunak:

- Laguntzaren xede den jarduera ekonomikoak eta establezimendu fisikoaren kokapenak egoitza soziala eta fiskala EAEn izan beharko dute.
- Abiarazten den jarduera ekonomikoa oinarri arautzaileetako 8. oinarrian jasotako Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren epigrafeetako batean sartuta edo sartzeko aurreikusita egon beharko da.
- Pertsona fisikoek eta autonomoek 18 urtetik gorakoak izan behar dute, eta EAEn erroldatuta egon behar dute.
- Autonomoek, sozietate zibilek eta ondasun-erkidegoek eta mikro-enpresek eta enpresa txikiek EAEn kokatutako merkataritza-establezimendu bat izan beharko dute gutxienez.
- Egunean izatea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, laguntza emateko ebazpena eman aurretik eta, gutxienez, laguntzaren edo dirulaguntzaren azken ordainketa egiaztatzen den arte.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko

eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2025eko deialdiko datuak honako hauek izan dira: Hasierako kreditua: 2.420.000 € Ebatzitako zenbatekoa, guztira: 831.628,37 € Aurkeztutako espediente-kopurua, guztira: 84 Emandako espediente-kopurua: 60 Ukatutako/atzera egindako/uko egindako espedienteen kopurua: 24 Aurrekontuaren exekuzioa % 34,36koa izan da; beraz, programak ez du arrakasta handirik izan abian jarri zen lehen urtean.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Laguntza eta aholkularitza jasotzeko laguntza jaso duten merkataritza-enpresen kopurua		28
Inbertsiorako laguntzaren onuradun izan diren merkataritza-enpresen kopurua		17
Gastuetarako laguntzaren onuradun izan diren merkataritza-enpresen kopurua		31

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Turismoa Merkaturatzeko eta sustatzeko Laguntza-Programa – TMS 2025

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko maiatzaren 27koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, Turismoa Merkaturatzeko eta Sustatzeko 2025. urteko laguntzak (TMS programa) arautzeko eta horien deialdia iragartzeko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/06/2502569e.shtml
https://www.euskadi.eus/contenidos/anuncio_tablon/res_3209667/es_def/adjuntos/Resolucion-definitiva-con-prorrateo_2025.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen xedea da turismo-sektoreko enpresentzako laguntzak erregulatzea eta deitzea, produktu berriak garatu eta merkatura ditzaten, bai eta espiritu ekintzailea eta berrikuntzaren kultura sustatzea eta Euskadi Basque Country marka turistikoaren posizionamendua sendotzen eta ostatu-gauen kopurua handitzen laguntzen duten ekitaldiak babestea ere.

Helburu horrekin bat etorriz, honako helburu hauek dituzten jarduketak lagunduko dira diruz:

A) Euskadin garatutako turismo-produktuak sortzen, martxan jartzen, sustatzen eta merkaturatzen laguntzea.

B) Euskadin egindako kultura-, gastronomia- eta kirol-ekitaldiei laguntzea, zehazki, bertan nahiz nazioartean oihartzun mediatikoa dutenak eta Euskadiren irudia eta turismo-posizionamendua sendotzen eta ostatu-gauen kopurua handitzen laguntzen dutenak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Guztira 101 eskaera aurkeztu ziren, eta horietatik 88k (%87,13) aldeko ebazpena jaso zuten.

Aldeko eskaeren %78,41 turismo-produktuak sortzeko, abian jartzeko, sustatzeko eta merkaturatzeko proiektuei zegozkien (69), eta % 21,59 ekitaldiei (19).

Eskaerak aztertu ondoren, laguntzen zenbateko osoa 989.910,83 eurokoa da, deialdian esleitutakoa (934.000,00) baino handiagoa. Hortaz, Agindu arautzailearen 2. oinarriak ezarritakoari jarraiki, diru-laguntza honetarako erabili beharreko gehieneko zenbateko osoa hartu eta diru-laguntzaren onuradunen artean hainbanatu da, eta analisiaren ondorioz ateratako gehieneko zenbatekoa hartuko da kalkulurako oinarri gisa (kalkulatutako diru-laguntza). Ondorioz, hainbanaketa %94,35 izan da.

	Aurkeztutako eskaerak	Aldeko eskaerak	%	Aurkeztutako gastua	Onartutako gastua	Azken dirulaguntza
GUZTIRA	101	88	87,13	3.620.178,13	2.063.294,35	933.999,54
Araba	11	11	100,00	314.180,48	192.552,16	104.600,74
Gipuzkoa	54	43	79,63	1.693.242,42	851.094,64	374.378,91
Bizkaia	36	34	94,44	1.612.755,23	1.019.647,55	455.019,89

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Turismo-sektoreko enpresei turismo-produktu berriak garatzen eta merkaturatzen laguntzea, eta, gainera, espiritu ekintzailea eta berrikuntzaren kultura sustatzea, turismoa merkaturatzeko eta sustatzeko laguntza-programaren bidez.		
Onartutako proiektuen kopurua:	--	69
Eragindako inbertsioa	2.275.000	1.924.344,92
Turismo-eskaintzaren bikaintasuna sustatzea…		
Lagundutako ekitaldien kopurua	20	19
Eragindako inbertsioa	--	1.695.833,21

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Ekintzailetzarako eta Turismo-enpresen Leihakortasunaren hobekintzarako laguntzak- EMET 2025

2.- Araua

AGINDUA, 2025ko maiatzaren 21ekoa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, turismo-arloko ekintzailetza laguntzeko eta turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzeko 2025ko ekitaldirako laguntzak arautu eta horien deialdia egiten duena

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/05/2502322e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Turismo-negozio berriak sortzeko eta sektorea modernizatzeko eta berritzeko laguntza-programaren deialdia egitea da Agindu honen xedea. Helburu horrekin bat, Euskal Autonomia Erkidegoan toki-garapenari lagunduko dioten turismo-negozio berriak sortzen lagunduko da, baita turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzen laguntzera bideratutako jarduketak ere, guztia ere berrikuntza teknologikoaren babesarekin; halaber, haien kalitatea hobetu nahi da, eta turismo seguru, jasangarriko eta irisgarriko eredu baterantz bideratu, baldin eta diruz laguntzeko honako lerro hauetan sartzen badira: ● Ekintzailetza, negozio turistiko berriak sortzeko. ● Turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2025eko deialdian 246 eskabide aurkeztu ziren: - 66 ekintzailetza-lerrorako (9 Araban, 22 Gipuzkoan eta 35 Bizkaian) - 180 lehiakortasun-lerrorako (20 Araban, 71 Gipuzkoan eta 89 Bizkaian) Horietatik 10ek atzera egin zuten, 57k ukatutakoak izan ziren araudia ez betetzeagatik eta 16k ukatutakoak izan ziren kreditu faltagatik. Aurkeztutako inbertsioa: - Ekintzailetza: 5.708.708,18 € - Lehiakortasuna: 5.516.151,48 €

Onartutako inbertsioa:

- Ekintzailetza: 4.033.814,53 €
- Lehiakortasuna: 2.829.382,59 €

Behin betiko dirulaguntza:

- Ekintzailetza: 550.103,72 €
- Lehiakortasuna: 734.896,28 €

Dirulaguntza jaso duten enpresak, guztira, 163 izan dira (17 Araban, 64 Gipuzkoan eta 82 Bizkaian).

Aurrekontua % 100ekoa izan da, eta agerian geratu da ez dela nahikoa izan hasiera batean onuradun izango ziren espediente guztiak aurre egiteko Kreditu faltagatik, 16 espediente dirulaguntzarik gabe geratu dira, lehiakortasun-lerrotik soberakina ekintzailetza-lerrora pasatu ondoren.

Erabilgarritasun eta inpaktu sozialari dagokionez:

II. eranskinean: Negozio turistiko berriak sortzeko ekintzailetzarako laguntza-lerroa.

3. puntuak hau dio:

Honako turismo-negozio hauek baloratuko dira:

• Enplegu egonkorra eta kalitatezkoa sortzen dutenak EAEn, eta emakumeen ekintzailetza eta kontratazioa bultzatzen dutenak, enpleguko genero-arrakala murrizten joateko.

Bestalde, honako hau ezartzen da 4. puntuan:

• Negozio berriek baliabide naturalak eraginkortasunez kudeatzen, ingurumena babesten eta klima-aldaketari aurre egiten lagunduko duten neurriak hartu beharko dituzte. Neurri horiek eskaerarekin batera doan proiektua baloratzeko azalpen-memorian zehaztu beharko dira. Informazio hori ematen ez bada, laguntza ukatuko da.

Honako hauek dira, besteak beste, aurkeztutako proiektuak baloratzeko irizpideak eta laguntzen aginduaren IV. eranskinean jasotako haztapen-faktoreak:

1. irizpidea. Enpresaren eta kontsumitzailearen aurreko erantzukizun soziala. Pertsonek eta erakundeek berdintasunaren arloan duten konpromisoa bultzatuko da, % 33ko edo gehiagoko desgaitasun-maila duten emakumeak eta gizonak kontratazioa, eta kontsumitzaileen aurrean duten erantzukizuna bultzatuko da, azken hori Euskadiko Kontsumoko Arbitraje Sistemari atxikitzea dela ulertuta.

3. irizpidea. Autoenplegua sortzea, emakumeen enplegua bultzatuz, eta soldatapeko enplegua sortzea, kontratazio mugagabea eta emakumeena bultzatuz.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Ekintzailetzari laguntzea turismo-negozio berriak sortzeko:		
Lagundutako enpresen kopurua	Ez du adierazten	36
Sortutako/mantendutako enplegua	Ez du adierazten	196
Eragindako inbertsioa	1.800.000	4.033.814,54
Berrikuntza teknologikoari, hobekuntzari, eskaintzaren optimizazioari eta eskaintza turismo jasangarri, arduratsu eta irisgarri baterantz egokitzeari laguntzea:		
Lagundutako enpresen kopurua	Ez du adierazten	128
Sortutako/mantendutako enplegua	Ez du adierazten	2.357
Eragindako inbertsioa	2.000.000	2.829.382,59

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Lurralde-proiektu Turiskoetarako laguntzen programa -PTT 2025

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko ekainaren 3koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baitira 2025eko ekitaldirako turismoko lurralde-proiektuetarako laguntzak.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/06/2502785e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen xedea da EAEko helmugen erakargarritasuna eta kalitatea hobetuko duten lurralde-proiektu turistikoei laguntzeko programaren deialdia egitea eta oinarriak ezartzea, turismo-fluxu berriak dinamizatzeko, banatzeko eta sortzeko 2025eko ekitaldirako, baldin eta proiektu-mota hauetan sartzen badira, betiere:

– Euskal Autonomia Erkidegoko helmugen erakargarritasuna eta esperientzia turistikoa hobetzen duten lurralde-proiektu turistikoak.

– Helmugen lehiakortasuna eta jasangarritasuna hobetzen duten proiektuak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Lurraldea	Aurkeztutako eskaerak	Onartutako eskaerak	Onartutako aurrekontua	Dirulaguntza teorikoa	Behin betiko dirulaguntza
Araba guztira	9	7	926.268,01 €	451.531,31 €	451.531,31 €
Gipuzkoa guztira	13	13	1.523.258,66 €	744.994,76 €	744.994,76 €
Bizkaia guztira	11	10	1.278.085,94 €	530.004,91 €	530.004,91 €
GUZTIRA	33	30	3.727.612,61 €	1.726.530,98 €	1.726.530,98 €

Deialdira 33 laguntza-eskaera aurkeztu ziren, eta horietatik 2k atzera egin zuten eta bat ezetsi egin zen onuradun izateko baldintzak ez betetzeagatik . Azkenik, 30 entitateri eman zitzaien laguntza.

Onartutako proiektuen kopurua, produktu-tipologiaren arabera (touring, enogastronomikoa, MICE, natura, familian, kulturala eta beste tipologia batzuk) 164 izan da, eta produktu turistikoak garatzeko eta kudeatzeko (zuzena edo laguntza teknikoa) sortutako/mantendutako enplegua 21 pertsonakoa (7 gizon eta 14 emakume).

Bestalde, aipatutako erakundeetako 25i, 15 pertsona (6 gizon eta 9 emakume) kontratatzen lagundu zaie, beren eragin-eremuetako enpresetan Euskadiko Turismoaren Kode Etikoaren programa ezartzeko. Aurrekontuaren betearazpena % 95,65ekoa izan zen.

Erabilgarritasuna eta gizarte-inpaktua:

Lurralde-proiektu turistikoetarako laguntzak (PTT) ekonomia suspertzea eta jarduera turistikoa bultzatzea bilatzen du; izan ere, turismoa garrantzi handiko sektore ekonomikoa da Euskadirentzat, eta nabarmen laguntzen du gure herrialdearen aberastasun ekonomiko eta kulturalean.

Zehazki, programa Turismoaren eta Merkataritzaren 2030erako Euskal Estrategiaren barruan eta XIII. Legegintzaldiko 2024-2028 Gobernu Programan zehaztutako konpromisoetan sartzen da: "ONGIZATEAN HAZI", Ongizatea, Aurrerapena, Eraldaketa eta Autogobernua Euskadi global baterako. Horien barruan, Sailaren jarduera-eremuak barne hartzen dituenekin, aipatutako Gobernu Planaren 2. ardatz estrategikoari baitagokio – Hazkunde eta ongizate eredua –, eta, horren barruan, 18. jarduketa-arloan – «Turismo jasangarria eta bikaintasunezkoa» –, honako konpromiso hauen bidez: 106 Euskadi, helmuga lehiakorra, 107 Euskadi, helmuga digitalizatua eta adimenduna eta 108 Euskadi, helmuga konprometitua eta iraunkorra.

Lehen konpromisoaren barruan (Euskadi, helmuga lehiakorra), programa honek eskualdez gaindiko produktu eta zerbitzu turistikoen garapena sustatzen du, lurralde-oreka eta -kohesioa indartzen ditu fluxuen banaketa eta eskaintzaren antolamendua bultzatuko duten ekintzen bidez, lurraldearen konektibitateak eta garraio jasangarriak eskaintzen dituzten aukerak indartuz. Euskadi, helmuga digitalizatua eta adimenduna konpromisoari dagokionez, DTI (Helmuga Turistiko Adimendunak) eredua indartu eta enpresetara estrapolatu nahi da, IZT (Enpresa Turistiko adimentsuak) gehiago izan ditzagun. Eta, Euskadi helmuga konprometitu eta jasangarria konpromisoaren barruan, Euskadiko Turismoaren Kode Etikoa indartu nahi da, helmuga iraunkor eta arduratsu bat sortzeko tresna gisa.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Gure ingurunearen eta Euskadiren ezaugarri bereizgarriak oinarri dituzten turismo-produktuak sortu, garatu, sustatu eta merkaturatzea bultzatzea:		
• Onartutako eskabide kopurua	Ez du adierazten	30
• Onartutako proiektu kopurua, produktu motaren arabera (gastronomia, bilerak (MICE), natura, kultura eta bestelakoak)	155	164
Turismo-produktuak (zuzenekoa edo laguntza teknikoa) garatzeko eta kudeatzeko enplegu garatua/zaindua	Ez du adierazten	21
Helmugen lehiakortasuna eta iraunkortasuna hobetzen duten proiektuei laguntzea (Kode Etikoa eta Enpresa Turistiko Adimentsua)	Ez du adierazten	25
• Programak ezartzeko lagundutako helmugen kopurua	Ez du adierazten	710
• Prestatutako enpresen kopurua	Ez du adierazten	15
Sortu/mantendutako enplegua		